

Hizkera argia

1

Zerrendak baliatu

Edukia errazago identifikatuko du irakurleak.

2

Izenzalekeriarik ez

Aditzak izen bihurtzeko joera dago. Erabili aditz estiloa, ulergarriagoa da eta.

3

Aditz esanguratsuak aukeratu

Aditz esanguratsuek argiago adierazten dute esanahia aditz ahulek baino.

4

Informazioa aurreratu

Aurreratu esaldiaren elementurik garrantzitsuena, edukia hobeto ulertzeko.

5

Esaldi aktiboen alde

Ekintza nork egiten duen adierazten dute; hortaz, adierazkorragoak eta zehatzagoak dira.

6

Baiezko esaldiak argiago

Gure burmuinak errazago ulertzen ditu zentzu positiboan idatzitakoak.